ARAUDIA 2024

XLII LEITZAKO HERRI KROSSA.

Lasterketa araudia:

1- AURRERA K.E.ak antolatuta eta Leitzako Udaletxea eta komertzioen laguntzarekin, 2024eko apirilaren 13an, larunbata, arratsaldeko 16:30etan hasita "XLII. LEITZAKO HERRI KROSSA" ospatuko da.

2- Dagokion kategorian edonork parte hartu dezake. **KATEGORIAK (jaiotze urtearen arabera izango dira):**
   - Benjaminak: 2014 - 2021
   - Gaztetxoak: 2009 - 2013
   - Absolutua: 1914- 2008

3- Kategori bakoitzean burutu beharreko distantziak:

Benjaminak	Gaztetxoak		Absolutua	
800 m	1 itzuli:	2.500 m	2 itzuli:	5000 m
			4 itzuli:	10000 m

4- Bi ibilbide desberdin daude, helmuga beti PLAZAN:
   - Benjaminak: Herriko kale nagusitik atera eta herrian zehar 800m plazaraino.
   - Besteak: Herriko kale nagusitik atera eta herrian zehar 2.500 metroko ibilbidean egin beharreko bueltak eginda, plazaraino.

5- Izena-ematea egunean bertan, Aurrera K.E.an 15:30etatik 17:00etara. Inskripzio orria bete eta 15€ ordainduta (Aurrera K.E.ko kideak 12€) dortsala emanen da. Benjaminak eta gaztetxoak dohainik. Aurretik www.kronoak.com en izena emanda 12€ (10 € Aurrera K.E. bazkideak).

6- IRTEERA ORDUTEGIA:

16.30	Benjaminak
17.00	Gaztetxoak
17.30	Absoluta

7- SARIAK:
   - Benjaminei dominak emanen zaizkie; absolutuei kamiseta bana.
   - Trofeoak kategori bakoitzean lehenengo eta bigarren sailkatuari eta lehenengo leitzarrari (Leitzan jaioak edo erroldatuak).
   - Absolutan SARIAK hauek izango dira:

5km

a) Gizonak: 1.- 100€ + garaikurra , 2.-Oparia + garaikurra
1.Leitzarra: garaikurra

b) Emakumeak: 1.- 100€ + garaikurra 2.- Oparia + garaikurra
1.Leitzarra: garaikurra

10km

a) Gizonak: 1.- 150€ + garaikurra , 2.- Oparia + garaikurra
1.Leitzarra: garaikurra

b) Emakumeak: 1.- 150€ + garaikurra, 2.- Oparia + garaikurra
1.Leitzarra: garaikurra

8- Axurie lortzeko aukera, izena ematen duen leitzar taldearentzat. Taldea neska eta mutilez osatua izan beharko da nahitaez . Ez da derrigorrezkoa taldekide guztiak km kantitate berdiñera apuntatuta egotea. Taldea 6 korrikalariz osatua izanen da, horietatik 3k froga bukatu beharko dute eta beste 3k froga ondorengo denboren azpitik egin:
   - 50 min (10 km egin dituztenek) 25 min (5 km egin dituztenek).

9- Sari banaketaren aurretik atsaldekoa karrapean.

10- Dutxak herriko polikiroldegian.

11- Oinarrizko osasun arreta SAMUR elkarteak eskainiko du.

12- Lasterketaren kontrolaz "Kronoak" arduratuko da.

13- Lasterketan zehar gomendatzen diren segurtasun neurriei buruzko agindu guztiak betetzea eskatzen diete antolatzaileek parte hartzaile guztiei.
14- Parte hartzaileek lasterketan zehar jasan ditzaketen dena delako kalte-galeraren ondoriozko erantzunkizun orotatik libre utziko dituzte probaren antolatzaileak, ez baldin bada horien zabarkeria edo doloagatik.
15- Korrikalariei mediku-azterketa egitea gomendatzen diegu.
16- Proba honek maila fisiko egoki bat eskatzen du.